

ZENTSUAK ETA BIZTANLERIAREN ESTADISTIKAK: Euskal Herriko datuak homologatzea

Euskal Herrian 1,3 milioi familia-etxebizitza daude, eta bakoitzean batez beste 2,3 lagun bizi dira

Euskal Herrian 1.287.127 familia-etxebizitza zeuden 2001 urtean. Etxebizitza gehien Bizkaian daude, 467.850, zehazki, Euskal Herriko etxebizitzaren herena baino gehiago (%36,3). Etxebizitza gutxien, berriz, Zuberoan daude: 7.560 besterik ez, Euskal Herriko etxebizitzaren %0,6. Gainerako herrialdeei dagokienez, Gipuzkoan 292.843 etxebizitza daude (%22,8), Nafarroa Garaian 254.954 (%19,8), Lapurdin 126.366 (%9,8), Araban 124.957 (%9,7) eta Nafarroa Beherean 12.597 (%1,0).

Euskal Herrian, 1.287.127 etxebizitza zeuden 2001. urtean: hamarretik lau Bizkaian, bi Gipuzkoan, bi Nafarroa Garaian, bat Lapurdin, bat Araban eta gainerakoak Nafarroa Beherean eta Zuberoan

(Ikusi 1. grafikoa)

Datu horiek herrialde bakoitzaren pisu demografikoarekin harremanetan jartzen baditugu, hainbat desoreka antzeman daitezke. Bizkaian, esaterako, Euskal Herriko biztanleen %38,7 bizi dira, eta etxebizitzaren %36,3 baino ez daude. Lapurdin, aitzitik, euskal herritarren %7,5 bizi dira, eta etxebizitzaren %9,8 daude.

(Ikusi 2. taula eta 3. grafikoa)

2001ean Euskal Herrian zegoen etxebizitza kopurua (1.287.127) biztanle kopuruarekin (2.902.962) harremanean jartzen badugu, etxebizitza bakoitzeko, batez beste, 2,3 biztanle ateratzen zaizkigu. Herrialdez herrialde aztertuz gero, ikusiko dugu etxebizitza bakoitzeko Bizkaiak, Arabak eta Gipuzkoak dutela biztanleen batez besteko handiena: 2,4 - 2,3 biztanle etxebizitza bakoitzeko. Batez bestekorik txikiena, berriz, Lapurdikoa da: ez da iristen bi lagunetara (1,7).

Euskal Herrian, batez beste, etxebizitza bakoitzeko 2,3 biztanle daude: Bizkaian 2,4, Araban eta Gipuzkoan 2,3, Nafarroa Garaian eta Nafarroa Beherean 2,2, Zuberoan 2,1 eta Lapurdin 1,7

Errealitatea, noski, batez besteko horiek azaltzen dutena baino konplexuagoa da. Kontuan hartu behar da familia bakoitzaren kide kopurua aldatu egiten dela, baina, horretaz gain, bada oso gogoan eduki behar den beste fenomeno bat ere: etxebizitza hutsen auzia (bigarren erabilera gaitzak zein beti hutsik daudenak). Familia-etxebizitza bakoitzean 2,3 pertsona bizi direla esatea, beraz, errealitatea irudikatzen ariketa bat baino ez da. Etxebizitza hutsak alboan uzten baditugu, eta kalkulua etxebizitza nagusiekin soilik egiten badugu, emaitza bestelakoa da: batez beste, ia hiru kide bizi dira Euskal Herriko familia-etxebizitza nagusi bakoitzean (2,8).

Azken mende erdian, Euskal Herriko etxebizitzaren kopurua hirukoiztu egin da; biztanleria, berriz, ez da bikoiztera iritsi

Euskal Herriak 1950-1981 tartean ezagutu zuen hazkunde demografiko itzelak berarekin ekarri zuen etxebizitza kopurua ere handitzea. Tarte horretan, euskal biztanleria ia milioi eta laurden lagunetan handitu zen (1.238.112), eta 1950ean Euskal Herrian bizi zen biztanle kopurua (1.643.272) ia bikoiztu egin zen. Ondoren, hazkunde garrantzitsu hori eten egin zen, eta azken 20 urteotan, 21.578 lagunetan baino ez da handitu Euskal Herriko biztanleria.

Euskal Herriko etxebizitzaren kopurua, azken mende erdian, hirukoiztu egin da; biztanleria, berriz, ez da bikoiztera

Biztanleria hainbeste handitu izanak, ezinbestean, etxebizitza beharra ekarri zuen, eta asko eta asko eraiki zituzten. Biztanleriaren hazkunderik handiena Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan

Garaian gertatu zen (1950-1981 tartean, biztanleria 1.195.333 lagunetan handitu zen), eta ondorioz, etxebizitza kopurua ere herrialde horietan ugartu zen gehien: etxebizitza kopurua hirukoiztu egin zen. Horrela bada, 30 urteren buruan egin zituzten etxebizitzak ordura arte eraikitakoen bikoitza izan ziren. 1950-2001 tartean, Arabako eta Bizkaiko etxebizitza kopuruak handitu ziren gehien. Arabak etxebizitza kopurua 4,9 halakotu zuen (+%389ko hazkundera), Bizkaiak 4,2 (+%318), Gipuzkoak 4,1 (+%306) eta Nafarroa Garaiak 3,1 (+%211).

Geroagoko datuei so eginez, 1975-1999 tartean, Lapurdik 1,6 halakotu zuen etxebizitza kopurua (+%63), Nafarroa Behereak 1,3 (+%27) eta Zuberoak 1,2 (+%20).

(Ikusi 4. grafikoa)

Sukar eraikitzaile horrek Euskal Herriko egitura eta lurraldea goitik behera eraldatu zituen: lehenago landa eremu ziren lurralde asko urbanizatu zituzten, eta Baionatik Bilborainoko hiri elkartearen fenomenoak eragin zuen.

Azken 20 urteetan, biztanle kopurua ez da handitu, baina etxebizitza kopuruak 1981. urtearen ondoren ere handitzen jarraitu du, ez, ordea, ordu arteko erritmo basatian. Tarte horretan (1981-2001), Euskal Herriko etxebizitza kopurua %27,1 handitu zen (aurreko %300eko hazkunderatik urrun): 1981eko 1.012.477 etxebizitzetatik, 2001eko 1.287.127 etxebizitzetara pasatu zen. Hazkunde horrek garrantzi berezia izan zuen Nafarroa Garaian (%43,4), Araban (%39,1) eta Lapurdin (%37,3); gainerako herrialdeetan ez da gairitu Euskal Herriko batez besteko hazkundera. Aipagarria da, era berean, Zuberoak eta Bizkaiak izan dutela hazkunderik txikiena (%12,6 eta %15,4 soilik handitu dute etxebizitza kopurua).

Azken bi hamarkadetan, biztanleriak bere horretan jarraitu duen arren, etxebizitza kopuruak handitzen jarraitu du: %43,4 Nafarroa Garaian, %39,1 Araban, %37,3 Lapurdin, %27,4 Gipuzkoan, %16,2 Nafarroa Beherean, %15,4 Bizkaian eta %12,6 Zuberoan

(Ikusi 5. taula)


Etxebizitzen eta biztanleen arteko harremanaren bilakaeran, 1981-2001 bitartean, Euskal Herriko batez bestekoa 2,8tik 2,3ra murriztu zen. Herrialde guztietan apaldu da batez besteko hori, Nafarroa Garaian eta Gipuzkoan gehien (ia puntu bat jaitsi da herrialde horietan), eta Lapurdin gutxien (puntu heren bat besterik ez).

Euskal Herrian, etxebizitza bakoitzeko 2,8 biztanle zeuden 1981ean : egun, 2,3 baino ez daude

(Ikusi 6. grafikoa)

Taula eta grafikoak

1. Etxebizitza kopurua, herrialdeka. Euskal Herria, 2001 (%)



Iturria: Euskal Herriko Datu Talaia.
Biztanleria eta Etxebizitza zentsuak (INE, INSEE)

* **Oharra:** Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999koak dira.


2. Etxebizitza kopurua eta biztanleria, herrialdeka. Euskal Herria, 2001

Eremua	Etxebizitza familiarak	Etxebizitza familiarak (%)	Biztanleria	Biztanleria (%)	Biztanleria / Etxebizitzak
Euskal Herria	1.287.127	100,0	2.902.962	100,0	2,3
Araba	124.957	9,7	287.928	9,9	2,3
Bizkaia	467.850	36,3	1.123.002	38,7	2,4
Gipuzkoa	292.843	22,8	673.563	23,2	2,3
Lapurdi	126.366	9,8	219.029	7,5	1,7
Nafarroa Beherea	12.597	1,0	28.076	1,0	2,2
Nafarroa Garaia	254.954	19,8	555.829	19,1	2,2
Zuberoa	7.560	0,6	15.535	0,5	2,1

Iturria: Euskal Herriko Datu Talaia. Biztanleria eta Etxebizitza zentsuak (INE, INSEE)

* **Oharra:** Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999koak dira.


3. Batez besteko biztanle kopurua etxebizitza bakoitzeko, herrialdeka. Euskal Herria, 2001



Iturria: Euskal Herriko Datu Talaia. Biztanleria eta Etxebizitza zentsuak (INE, INSEE)

* **Oharra:** Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999koak dira.

4. Etxebizitza kopuruaren bilakaera, herrialdeka. Euskal Herria, 1950-2001



Iturria: Euskal Herriko Datu Talaia. Biztanleria eta Etxebizitza zentsuak, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistikak eta Biztanleriaren udal-errola eraberritzea (IEN, EUSTAT, INE, INSEE)

***Oharra:** Datuek ez dute ematen Trebiñuren, Argantzonen eta Villaverde Turtziozen berri, 2001eko datuetan izan ezik. Zentsuak egin ziren urteak ez datoz bat (ikus www.datutalaia.net, Metodologia Oharrak atala).

5. Etxebizitza kopuruaren eta biztanleriaren bilakaera, herrialdeka. Euskal Herria, 1982-2001


	1981	1991	2001	1981 (1981=100)	1991 (1981=100)	2001 (1981=100)
Etxebizitzak	1.012.477	1.103.457	1.287.127	100,0	109,0	127,1
Araba	89.833	106.721	124.957	100,0	118,8	139,1
Bizkaia	405.309	423.906	467.850	100,0	104,6	115,4
Gipuzkoa	229.897	244.282	292.843	100,0	106,3	127,4
Lapurdi	92.055	108.244	126.366	100,0	117,6	137,3
Nafarroa Beherea	10.842	11.900	12.597	100,0	109,8	116,2
Nafarroa Garaia	177.828	201.273	254.954	100,0	113,2	143,4
Zuberoa	6.713	7.131	7.560	100,0	106,2	112,6
Biztanleria	2.881.384	2.883.993	2.902.962	100,0	100,1	100,7
Araba	262.407	277.653	287.928	100,0	105,8	109,7
Bizkaia	1.181.865	1.156.671	1.123.002	100,0	97,9	95,0
Gipuzkoa	692.782	676.307	673.563	100,0	97,6	97,2
Lapurdi	189.594	204.313	219.029	100,0	107,8	115,5
Nafarroa Beherea	29.730	28.978	28.076	100,0	97,5	94,4
Nafarroa Garaia	507.367	523.563	555.829	100,0	103,2	109,6
Zuberoa	17.639	16.508	15.535	100,0	93,6	88,1
Biztanleria / Etxebizitzak	2,8	2,6	2,3	100,0	91,8	79,3
Araba	2,9	2,6	2,3	100,0	89,1	78,9
Bizkaia	2,9	2,7	2,4	100,0	93,6	82,3
Gipuzkoa	3,0	2,8	2,3	100,0	91,9	76,3
Lapurdi	2,1	1,9	1,7	100,0	91,6	84,2
Nafarroa Beherea	2,7	2,4	2,2	100,0	88,8	81,3
Nafarroa Garaia	2,9	2,6	2,2	100,0	91,2	76,4
Zuberoa	2,6	2,3	2,1	100,0	88,1	78,2

Iturria: Euskal Herriko Datu Talaia. Biztanleria eta Etxebizitza zentsuak, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistikak eta Biztanleriaren udal-errola eraberritzea (IEN, EUSTAT, INE, INSEE)

*Oharra: Datuek ez dute ematen Trebiñuren, Argantzonen eta Villaverde Turtziozen berri, 2001eko datuetan izan ezik. Zentsuak egin ziren urteak ez datoz bat (ikusi www.datutalaia.net, Metodologia Oharrak atala).

6. Batez besteko biztanle kopuruaren bilakaera etxebizitza bakoitzeko, herrialdeka. Euskal Herria, 1981-2001

Iturria: Euskal Herriko Datu Talaia.
Biztanleria eta Etxebizitza zentsuak, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistikak eta Biztanleriaren udal-errola eraberritzea (IEN, EUSTAT, INE, INSEE)
***Oharra:** Datuek ez dute ematen Trebiñuren, Argantzonen eta Villaverde Turtziozen berri, 2001eko datuetan izan ezik. Zentsuak egin ziren urteak ez datoz bat (ikus www.datutalaia.net, Metodologia Oharrak atala).



- Prentsa ohar hau egiteko erabili ditugun datu guztiak helbide honetan aurkituko dituzu:

WWW.datutalaia.net

- **Datu Talaia, Gai degiako Estatistika Sailak**, Espainiako eta Frantziako estatu etako azken zentsuetan (2001 eta 1999ekoak, hurrenez hurren) oinarrituta egin dituen homologazio estatistikoen emaitza dira datu horiek. Lehen aldiz, Euskal Herri osoko ikuspegia eskaintzen da. Euskal Herriko datuak lortzeko egin ditugun prozeduren berri jakiteko, ikus web orriko "Iturriak eta metodologia oharrak" txostena.
- **Jatorrizko datuak:** Biztanleria zentsuak eta Biztanleriaren estatistikak (EUSTAT, INE eta INSEE). Europako estatu etako datuak: EUROSTAT.

**Argibide gehiagorako edo
Prentsa Ohar zaharrak hiru hizkuntzetan kontsultatzeko:**
Euskal Herriko Datu Talaia
www.datutalaia.net